

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2022ko UZTAILAREN 26an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2022ko uztailaren 26an, eguerdiko 13.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK: Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Maialen Alonso Labandibar
Mireia Ruiz Delgado


Bere ezin etorria adierazten dute: Jesus Maria Tejada Cantero eta Aitor Beistegui Fiallegas

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:
➤ 2022ko ekainaren 30ean egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 30 de junio de 2022.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Larraulgo udalaren eta Larraulgo poligono 1, 084 partzela jabearekin egin behar den hitzarmenaren onespena./ Aprobación del convenio a suscribir entre el Ayuntamiento de Larraul y el propietario de la parcela 084, del polígono 1 de Larraul.**
- 5. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2022ko 3. Eta 4. Hirhilabeteko ekarpenak burutzea./ Realizar las aportaciones correspondientes al 3. y 4. Trimestre a la Mancomunidad de Servicios de Aiztondo.**
- 6. 3/2022 zebakidun kreditu aldaketaren hasierako onespena./Aprobación inicial de la modificación de créditos número 3/2022.**
- 7. Aiztondo Emakumeen taldea osatzeko diru-laguntzaren onespena/Aprobación de la subvención para la constitución del grupo de mujeres de Aiztondo.**
- 8. I.L.O jaunak eginiko erantzunkizun patrimonialeko eskaeraren**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

onespena/Aceptación de la solicitud realizada por I.L.O. de responsabilidad patrimonial .

9. Beste batzuk/Otros.

10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ☐ 2022 urteko ekainaren 30ean egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 77/2022tik 90/2022ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ULAHI	429,57
NAGORE ZABALA	50,00
MAQUELSA	28,74
OSCAR GALINDO	133,10
REPSOL ELECTRICIDAD	101,53
REPSOL ELECTRICIDAD	98,09
REPSOL ELECTRICIDAD	64,35
REPSOL ELECTRICIDAD	25,12
REPSOL ELECTRICIDAD	242,70
SECURITAS DIRECT	49,61
SECURITAS DIRECT	50,22
GRENKE	129,41
BEÑAT GARCIA	387,20
EBA ERKIZIA	1.269,75
CONTENEDORES SARASOLA	233,65
BERRI LANTEGIA	66,47
ARRATE ITURBE	2.448,77



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZU ETA BOK	1.590,62
TELEFONICA	27,59
KIROLZER	63,45
BABESA SUZAI	231,06
BABESA SUZAI	93,07
PILI OTAEGI	346,77
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	853,66
SANIPLAST	38,84
IÑAKI ESNAL	456,81

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **9.510,15** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN ETA LARRAULGO POLIGONO 1, 084 PARTZELA JABEAREKIN EGIN BEHAR DEN HITZARMENAREN ONESPENA

Ikusita Larraulgo Udalak, Larraulgo urmaela proiektua aurrera eramateko on iritzia eman duela.

Ikusita proiektu honen babesean, Larraulgo 1 poligonoko 084 lursailean, Eskolako ikasleek naturarekin kontaktu zuzena areagotzeko, Urmaela bat eraikiko dela, Aranzadi zientzia elkartearekin elkarlanean.


Ikusita I.M.A. jaunak, Larraulgo poligono 1,084 partzela jabeak, ados agertu dela bere lursailean Urmaela proiektua gauzatzearekin. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Poligono 1,084 partzelan Larraulgo Urmaela proiektua gauzatu ahal izateko Larraulgo Udalaren eta I.M.A. jaunaren arteko hitzarmenaren onespena.

BIGARRENA: Maite Arana Perez, Larraulgo Alkatesa ahalmenu Larraulgo udalaren izenean, prestatu den Larraulgo Poligono 1,084



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

partzelaren jabearekin hitzarmena sinatzeko, bertan Larraulgo urmaela proiektua egin ahal izateko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri, I.M.A. jaunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2022KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA

Ikusirik 2022ko ekainaren 27an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2022 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 13.500,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 10.500,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2022 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.500,00 eurotako ekarpena burutzea 2022 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2022 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 10.500,00 euro
- Kultura: 3.000,00 euro


BIGARRENA.- 13.500,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

3/2022 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.226.231.50.06 2022	EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK	2.500,00	600,00	3.100,00
1 0000.224.920.00.01 2022	ASEGURU PRIMAK.	3.500,00	300,00	3.800,00
1 0000.689.924.00.01 2022	AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK	4.000,00	2.100,00	6.100,00
1 0000.227.341.00.04 2022	KIROL GASTUAK	800,00	820,00	1.620,00
1 0000.227.323.00.01 2022	GARBIKETA ZERBITZUA. ESKOLA	14.000,00	750,00	14.750,00
GUZTIRA		24.800,00	4.570,00	29.370,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2022	GERAKINAK	4.570,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			4.570,00

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

ZAZPIGARREN PUNTUA

AIZTONDO EMAKUMEEN TALDEA OSATZEKO DIRU-LAGUNTZAREN ONESPENA

Ikusirik Aiztondo bailaran emakumeen talde bat sortzeko apustua egin dela, kirola bultzatzeko helburuarekin. Taldeari babes emateko eskaera luzatu dutelarik Aiztondo bailara osatzen duten udal guztiei.

Ikusita, sortu berria den "Aiztondo emakumeen kluba"-k bere antolaketarako finantzaketa behar duela, horretarako Larraulgo Udalari 362,25 eurotako diru-laguntza eskaera egiten diote.

Ikusita, 2022 urteko udal aurrekontuetako 1 0000.227.341.00.01 kontu sailan badagoela diru-laguntza honi aurre egiteko nahiko kreditua.


Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Aiztondo emakumeen taldeari 362,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea.

BIGARRENA.- 362,00 eurotako gastua onestea, 2022 urterako udal aurrekontuetako 1.0000.227.341.00.04 kontu sailaren kargura.

HIRUGARRENA.- Aiztondo emakumeen Taldeari erabaki honen berri ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZORTZIGARREN PUNTUA

**I.L.O. JAUNAK EGINIKO ERANTZUNKIZUN PATRIMONIALEKO
ESKAERAREN ONESPENA**

Ikusirik, I.P.A. prokuradoreak, I.L.O jaunaren izenean eginiko eskaera, non martxoaren 20an egin zen Larrault-Ernio-Larrault mendi lasterketan, herriko frontoian kotxea sartzan ari zela haize bolada baten ostean atea itxi eta bere ibilgailuak hainbat kolpe jasan zituela.

Kolpearen ondorioz jasandako kalteak 435,58 eurotako kostu bat izan du. Larraultgo Udalak duen aseguruak 300 eurotako frankizia bat duenez, I.P.A. prokuradoreak, I.L.O. jaunaren izenean 300,00 eurotako diru-kopurua erreklamatzan dio Larraultgo Udalari.

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraultgo Udalak, I.P.A. prokuradoreak, I.L.O. jaunaren izenean eginiko eskaera onesten du, hau da, 2022ko martxoaren 20an I.L.O. jaunaren ibilgailuak jasan zituen kolpeen ondorioz, erreklamatzan dituen 300,00 eurotako diru-kopurua ordaintzea.

BIGARRENA: 300,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK


Ez dira aurkeztan.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Erniozaleak Kultur Elkarteak aurkeztuturiko idatziaren berri ematen da, non azaltzan duten 2022ko uztailaren 31an, Gurutzea egin zela 75. Urteurrena denez, jaialdi xume bat ospatuko dela Zelatunen bertara joateko gonbidapena luzatzen dutelarik.

Jaialdiaren ostean, Erniozaleak Kultur Elkarteak, elkarte bezala bukaera emango dio eta ofizialki azaroaren 1ean izango duela bere azken eguna azaltzan du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 13.30 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.